

# Ezpalak

JON TORNER

## Abian da 'Maimorables' jaialdia

OROTARA 24 kultur ekitaldi eskainiko dituzte Baiona, Angelu eta Bokaleko kale eta aretoetan, ekainaren 4ra bitartean. Maimorables jaialdiaren 10. edizioan dantza eta antzerki emanaldiak, kontzertuak, argazkilaritza ikastaroa eta hip-hop lehiaketa izango dira, besteak beste. Informazio gehiago: [www.snbsa.fr](http://www.snbsa.fr).



## Bilbora ekarri dute Rubensen 'Deidamiaren bahiketa'

PETER PAUL RUBENS (Siegen, Alemania, 1577 - Anberes, Belgika, 1640) margolari ezagunaren *Deidamiaren bahiketa* (1636) lana ikusgai izango da irailaren 5a arte Bilboko Arte Eder Museoan, "Gonbidatutako Obra" gisa. Horrez gain, koadroaren aurretik artistak egindako zirriborroa ere ekarri dute museora. Rubensek Felipe IV.aren enkarguz egin zuen artelan hori Madrilgo bere egoitzan jartzeko eta Argos erregearen alaba Deidamia, Eurito zentauroak bahitzen duen momentua ilustratzen du.

**Susana Koska** donostiarrak azken 30 urteotako mugimendu feministan oinarritutako *Vindicación* dokumentala egin du. Mugimenduaren arlo ezberdinetan ibilitako emakumeen testigantzak bildu ditu. "Mugimendu feminista izan da gizartea gehien aldatu duen gizarte mugimendua", esan du zuzendariak, "20 urteotan lortutakoa ospatzeko modukoa dela uste dut, lortzeko asko geratzen bada ere".

**Irati Jimenez** idazle mundakarraren *Nora ez dakizun hori* (Elkar) eleberriri eman diote 111 Akademiako kideek Beterriko Liburua aipamena. Jimenezen lanarekin batera, Aingeru Epaltzaren *Izan bainintzen Nafarroako errege* (Elkar) iritsi zen azken bozketa txandaraino.



**Jorge Oteiza** artistak egindako 25 obra bildu dituzte Gernikako Euskal Herria Museoan. 1942tik 1987ra bitartean egindako lanak dira, Gernika erreferente sinboliko gisa hartu dutenak. *Jorge Oteizaren Gernika* erakusketa uztailaren 25a arte izango da zabalik.


**Montxo Armendariz** zinemagile nafarra 'Honoris Causa' doktore izendatu du Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP).

● **Patxi Huarte 'Zaldi Eroa' marrazkilariak Nabarra aldizkarian:** «Nik ez dakit zer duten marrazkiek, beti esaten dut, baina badute karga indartsuago bat. Zuk idatz dezakezu esaldi arrunt batean 'Jesukristo gurutzean biluzik hil zen' eta horrela irakurri duzu Biblian, Itun Berrian. Idatz dezakezu ziur aski Jesukristo biluzik hil zutela, baina Jesukristo gurutzean biluzik marrazten baduzu, eta gainera ilustrazio errealista bat egiten baduzu, bueno, bueno... hori kolpe bat da. Eta berdin Mahomarekin. (...) Kasu honetan ['nobela grafiko' kontzeptuaz ari da] agian ez dute oso ondo asmatu. Eta batzuk mindu dira, e? Orain berriki esan dute euskarazko lehen nobela grafiko atera dela eta batzuek diote: 'Eta guk zer egiten genuen, bada?'».

● **Luke Uribe-Etxebarria EAJko parlamentariak Deian:** «[Eusko Jaurlaritzak sorturiko Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa (AKEKS) erakundeak]

3,5 milioi euro inbertitu ditu Notro TV enpresan, Madrilgo Vértice 360° ikus-entzunezko taldean dagoena (...) Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak, egoitza erreala Euskadin ez duen enpresa batean inbertitzen? Ez al du Euskadin kokaturiko enpresetan inbertitzeko bete-beharra? Ez al du Euskadiko egitura industrial osatzen duten enpresen abiatzea, garapena eta zabalkuntza bultzatu behar?».

● **Maite Beaumont mezzosopranoak Garan:** «Tradizio koral ikaragarria dago, musika maite duen eta koruetan praktikatzen duen jende ugari dago. Euskal Herrian gertaera harrigarria da hori, eta beste leku batzuetan ez da hori gertatzen (...) Gutako gutxi batzuk erabakia hartu dugu kantuaz profesionalki bizitzeko, kontserbatorioan ikasi eta atzerrira joateko. Ageriko buruak gara, baina hemen dagoen lehengaia, harrobia, oso ona da».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)